

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO SAILA
JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
KULTURA SAILA

2918

HUTSEN ZUZENKETA, honako dekretu honena: «76/2012 Dekretua, maiatzaren 22koa, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuak, 18.2.b) artikuluan zehazten duenez, testuinguruak argi eta garbi aditzera ematen dituen eta dokumentuen esanahia aldatu ez, baina balizko nahasketak saihesteko aldatzea komeni diren hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzendu beharko ditu, testua argitaratzeko agindua eman duen erakundeak eskatuta.

Modu horretako hutsak atzeman dira Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretua aldatzen duen maiatzaren 22ko 76/2012 Dekretuan (2012ko ekainaren 5eko EHAA, 109. zk.). Hona hemen zuzenketak:

2012/2516 (11/3) orrialdean, euskarazko bertsioan, honako hau dioen lekuan:

«Zortzigarren artikulua.– 30/1998 Dekretuak, otsailaren 24koak, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duenak 20. artikuluan xedatutakoa aldatzen da eta honako moduan idazten da:

(...)

3.– Prozedura hasten den unetik sei hilabete igarotzen badira Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren berariazko ebazpenik gabe, eskaera gaitzetsizat jo beharko da.»

Honako hau esan behar du:

«Zortzigarren artikulua.– 30/1998 Dekretuak, otsailaren 24koak, Ertzaintzan euskararen normalizazio-prozesua arautzen duenak 20. artikuluan xedatutakoa aldatzen da eta honako moduan idazten da:

(...)

3.– Prozedura hasten den unetik sei hilabete igarotzen badira Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren berariazko ebazpenik gabe, eskaera onartutzat jo beharko da.»